

EMPRESEN BETEBEHARRAK

Langileen kanpo zerbitzaldia

Nafarroako profesionala naiz

Langileen kanpo zerbitzaldia

- **Lehenik eta behin, kanpo zerbitzaldiaren berri eman behar zaio lan ikuskaritzari (inspection du travail):** <https://www.sipsi.travail.gouv.fr/> Deklarazio hori egiten ez bada kanpo zerbitzaldiko langile bakoitzeko 2000€ko isuna ukan dezake enpresak!

- **Frantzian presente dagoen ordezkaria izendatu behar da.** Dokumentua frantsesez idatzi behar da. Ordezkariaren izena eta kontaktua; izendapenaren onarpena; izendapen horren iraupena eta indarrean hasten den eguna; kontrola egin dezaketen agentek dokumentuak eskuragarri izanen dituzten lekua azaldu behar ditu. Betebehar hori betetzen ez bada kanpo zerbitzaldiko langile bakoitzeko 2000€ko isuna ukan dezake enpresak!

- **Langileak Akitania-Berrira abiatu aurretik:**

> Euskadin edo Nafarroan eskuduntza duen agintea abisatu: Ministerio de Empleo y Seguridad Social (Ministère de l'emploi et de la sécurité sociale) Calle Agustin de Betancourt, 4
28071 Madrid - Espagne - Tél : 00 34 91 363 00 00 - informacionmtin@meyss.es - www.empleo.gob.es

> A1 dokumentu eramangarria edo E101 formularioa eskuratu (deskargatu)

- **Etxegintza eta obra publikoetako eta ikuskizun alorreko enpresek** oporraldi ordainduen eta eguraldiarengatiko (intempéries) kutxa batean matrikulatu behar dute.

EMPRESEN BETEBEHARRAK

Langileen kanpo
zerbitzaldia

**Nafarroako
profesionala naiz**

- **Kanpo zerbitzaldian dauden langileei** eta bere jarduerari buruzko dokumentazioa eskura eduki, kontrola izango balitz:

> Kanpo zerbitzaldiko langileei dagokienez

Soldataren ordainketa egiaztatzea
Eguneroko lan denboraren segipena
Ordezkararen izendapenaren kopia
Langileak lana egiteko baimena ematen duen mediku agiria

+

Hilabete 1 baino gehiagoko kanpo zerbitzaldientzat
Lansari egiaztatzea (gutxieneko soldata, lanaren iraupena, oporrak eta jai egunak, indarrean den hitzarmen kolektiboa...)
Hilabete 1 baino gutxiagoko kanpo zerbitzaldientzat
Gutxieneko lansariaren froga

> Enpresari dagokionez: enpresak bere jatorrizko herrialdean egiazko jarduera bat duela froga dezaketen dokumentuak. Betebehar hori betetzen ez bada kanpo zerbitzaldiko langile bakoitzeko 2000€ko isuna ukan dezake enpresak.

- « **Funtsezko baldintzak** » **bermatu**:

> Askatasun indibidual eta kolektiboak; ez diskriminatzea; amatasunaren babesa; greba eskubidea

> Lanaren iraupena, jai egunak, urteroko oporrak eta opor bereziak:

Legezko lanaren iraupena asteko 35 ordukoa da
Bi lan egunen arteko atsedenaldia 11 ordukoa da, jarraian
Lan denboraren gehieneko iraupena astean 48 ordukoa eta egunean 10 ordukoa da
Hilabete bakoitzeko 2.5 opor egun

> Gutxieneko soldata, SMIC 9.76€/ordu, hots 69.16€/ egun edo 1498.47€/ hilabete + ordu gehigarriak. Kontuz!!! Langileari kanpo zerbitzaldiak eragiten dituen gastuak ordaintzeko ematen zaiona (bidaia, ostatua) ez dira soldataren barnean sartzen

> Laneko osasun eta segurtasuneko neurriak ezartzen direla bermatu.

Informazio gehiago hemen: <http://travail-emploi.gouv.fr/droit-du-travail/detachement-des-salaries-et-lutte-contre-la-fraude-au-detachement/>

EMPRESEN BETEBEHARRAK

Langileen kanpo
zerbitzaldia

**Nafarroako
profesionala naiz**

Zehaztapen zenbait:

- **Jarduera batzuk betetzeko ezinbestekoa da lan kalifikazioaren aitortpen bat eskuratzea.** Akitania-Berrian zerbitzu eskaintza librea egiteko, Euskadin edo Nafarroan legezko jarduera ekonomiko bat eduki behar duzu.

- **Informazio gehiago hemen:** <https://www.guichet-entreprises.fr/fr/eugo/libre-prestation-de-services-lps/>

- **Kanpo zerbitzaldia egiten duen enpresak matrikulatu eta BEZ zenbakia eskatu behar du Frantzian:**

Horretarako, eskaera honako zerbitzuari egin behar diozu:

Service des impôts des entreprises étrangères (SIEE)
10, rue du Centre TSA 20011
93 465 NOISY-LE-GRAND CEDEX
Tél : 01 57 33 85 00

siee.dresg@dgfip.finances.gouv.fr

<https://www.impots.gouv.fr/portail/professionnel/les-entreprises-etrangeres>

2018ko abuztua